

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko urtarrilaren 7a. VIII. urtea. 2.154. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Tabernariak erretzaileek neurri berria errespetatzen ari direla diote

Urtarrilaren 2tik leku itxi publikoetan ezin da erre tabakoaren aurkako lege berriaren ondorioz; tabernarien iritziz «erretzaileek uste baino errespetu handiagoa dute»

Tabernetan, jatetxeetan, hotel eta antzekoetan, haur parkeetan, ospitaleetan, osasun zentroetan, aretoetan eta leku txikietan debekatu dute erretzea ◉ 6-7



E. MAZ



Abeid Moulud
Bir-Lehu herriko alkatea

«Senidetzeak bi helburu ditu: kooperazioa eta egoera politikoa ezagutaraztea»

Elkarrizketa ◉ 5

Bukatu dira Berri Txarrak ikusteko sarrerak

Kontzertua urtarrilaren 14an izango da Tolosako Bonberenean; 400 sarrerak agortu dira ◉ 3

→ **Shanti Txapelketako sari banaketa.** 60 taldek hartu dute parte areto-futboleko lehiaketan. Benjamin nesketan Izarrak, 2002an jaiotako benjamin mutiletan Laskorain Tigreak, 2001 urtean jaiotako benjamin mutiletan Toka Roka, alebin nesketan Deabru Bihurriak eta alebin mutiletan Liger-ak izeneko taldeek irabazi dute abenduaren 26ean Xabi Alonso futbolari tolosarrak irekitako XXII. Shanti Txapelketa. ◉ 5



saridunak



sarrerak



LAGUN ARO GBC
Caja Laboral Baskonia
saskibalo partida

◉ Manoli Jauregi (Alegia)
Urtarrilak 9 ◉ Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben



HITZA jarriko da saridunarekin kontaktuan

Irudia ◊ **Musika**



**BANDEN
URTEKO
LEHEN SAIOA**

Urte berriko lehendabiziko kontzertua eskaini zuten atzo Udala Txistulari Bandak eta Musika Bandak. Musika Eskolako aretoan egin zuten, eta bertan Eguberrietako ohiko doinuak izan ziren entzungai Iñaki Letamendia eta Luis Mari Gartziairen zuzendaritzapean. Bertaratu zirenek mokadutxo hartzeko aukera ere izan zuten. Hurrengo hilabetean izango dute hurrengo emanaldia, otsailaren 20an, hain zuzen ere. Iurreamendi egoitzan eskainiko dute orduan kontzertua. **R.CALVO**

**Baloiaren
inguruan festa**

Eguberrietako Shanti Txapelketaren finalak jokatu zituzten atzo Usabal kiroldegian; 60 taldek hartu dute parte

Erredakzioa Kirola

Giro polita izan zen atzo goizean Usabal kiroldegian, Eguberrietako Shanti Txapelketako finalean. Bost mailetako azken partidak jokatu zituzten, eta horiekin erabaki ziren aurtengo txapeladunak. Ondoren, sari banaketa egin zuten. Garaikurrak banatu zituzten lehen lau taldeentzat, eta opariak izan ziren parte-hartzaile guztientzat. Horrela amaitu zen, pasa den abenduaren 26an Xabi Alonsok ireki zuen txapelketa.

22. aldiz antolatu dute aurten Shanti Txapelketa. Guztira, 60 taldek hartu dute parte, eta guztien artean 600 gazte inguru aritu dira fubolean.

↓ **Sailkapena**

Benjamin Neskek

1. Izarrak
2. Zurrunbiloak
3. Tigre Txikiak

Benjamin mutilak (2002)

1. Laskorain Tigreak
2. Itxaso-Honda
3. Deabru Beltzak

Benjamin mutilak (2001)

1. Toka Roka
2. Txixpak
3. Egarriko Tigreak

Alebin neskek

1. Deabru Bihurriak
2. Txinparta
3. Izurdeak

Alebin mutilak

1. Liger-ak
2. Raku
3. Kukuak
4. Saikin



Benjamin nesketan garaileak izan da Izarrak taldea, eta mutiletan, berriz, Laskorain Tigreak. **ENERITZ MAIZ**



2001 urteko benjamin mutiletan txapeladunak, Toka Roja, eta Alebin nesketan irabazleak Deabru Bihurriak. **E.MAIZ**



Alebin mutiletan, Liger-ak izan dira garaileak. **ENERITZ MAIZ**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bukatu dira Berri Txarrakeko sarrerak

Emanaldia hilaren 14an izango da Bonberenean 22:30etik aurrera; gutzira 400 sarrera jarri dituzte salgai

Erredakzioa Musika

Bonbereneak 400 sarrera jarri zituen salgai hilaren 14ko Berri Txarrak taldearen kontzertua ikusteko, baina guztiak saldu dituzte jada.

Ez da lehen aldiz Lekunberriko

taldeak Bonberenean jotzen duela eta eskualdean ere orain gutxi jo zuten. Izan ere, Txolarre irratia antolatuta kontzertua eskaini zuten Anoetako Gaztetxean. Bertan ere segituan agortu ziren sarrerak.

Berri Txarrakek Payola Tourren baitan eskainiko du emanaldia. *Payola* da beraien azken lana eta bateri-jotzaile berria ere estreinatu dute, besteren artean, Dut eta Kuraia taldeekin aritutako Galder Izagirre, hain zuzen.

Kontzertu bizia eskainiko dute, beti egiten duten moduan.



Tolosan eskainitako kontzertu baten irudia. M. SORDA

Beharpenak izango dira Merkatu Txikian

Erredakzioa Elkartasuna

Bihar eta etzi izango da Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikira joateko azken egunak eta beharpenak egongo direla argitu dute. Arropa, oinetakoak eta liburuak euro batean eta beste jantziak 4 eurotan egongo dira. Bestetik, Angel Cuedok Aranburun duen *Mundu bete kolore* erakusketan ere 50 euroko irudiak 30 eurotan eskuratu daitezke. Ordainketa Merkatu Txikian egin behar da.

Binakako Pilota Txapelketarekin hasiko da kirol jarduera

Beotibar frontoian Olaizola I.-Beloki eta Berasaluze VII.-Apraiz arteko lehia ikusi ahal izango da gaur

Erredakzioa Kirola

Atzoko egunkariaren aurreratu moduan lehen mailako Binakako Pilota Txapelketako partida izango da gaur Tolosako Beotibar fro-

ntoian 16:30etik aurrera. Olaizola I.-Belokik Berasaluze VII.-Apraiz izango dituzte aurkari.

Tolosa CF-Roteta, bihar

Era berean, bihar 16:30etik aurrera erregional ohorezko mailako partida ere izango da Berazubiko futbol-zelaian. Tolosa CF Rotetaren aurka ariko da.

Asteburu luze honetan Tolosan izango den kirol partida guztiak honako taulan ikusi ditzakezue.

↓ Kirol jarduera

USABAL

■ Urtarrilak 7, gaur.

-10:00etan kadeteen eskubaloi partidak goiko kantuan: Tolosa-Ereintza.

-11:30ean juniorren eskubaloi goiko kantuan: Tolosa-Ereintza.

■ Urtarrilak 8, bihar.

-09:30ean infantil nesken futbola zelaian: Tolosa CF-Lazkao.

-10:00etan junior nesken saskibaloi partidak goiko kantuan: Aralar TAKE-BKL.

-11:00etan infantilen futbola zelaian: Tolosa CF-Lazkao.

-12:00etan kadete mutilen saskibaloi goiko kantuan: Bide TAKE-Bergara. Kadete nesken saskibaloi goiko kantuan: TAKE Aralar-Ordizia.

-12:30ean kadeteen futbol partida futbola zelaian: Tolosa CF-Hernani.

-15:30ean emakume seniorren futbol partida futbola zelaian: Tolosa CF-Mariño.

-16:00etan seniorren saskibaloi partida goiko kantuan: TAKE Orbelo-Easo Berri.

-17:30ean jubenilen lehen mailako futbol partida: Tolosa CF-Urki.

-18:00etan mutilen areto-futbola goiko kantuan: Laskorain-Santurtzi.

-18:00etan areto-futboleko nesken partida beheko kantuan: Laskorain-Alegria.



Herenegun aukeratu zituzten gaurko pilotak Beotibarren. I. TERRADILLOS

'Nothing personal' filma ikusteko aukera, gaur

Zine forumaren baitan eskainiko dute Leidorren jatorrizko bertsioan 19:15ean eta 21:45ean

Erredakzioa Zinema

Pelikula ugari ikusteko aukera izango da egun hauetan Tolosako Leidorren. Gaur bertan zine forumaren txanda izango da. 19:15ean eta 21:45ean *Nothing personal* filma ikusteko aukera izango da. Ursula Antoniakaren pelikula holarandiar honetan Irlandara doan neska baten gora beherak dira na-

gusi. Neska honek kalean bizitzeko hautua hartzen du eta horrela ezagutzen du bera baino zaharragoa den gizon bat. Beraien arteko harremana da filmaren gai nagusia.

Bihar berriz, hiru filma eskainiko dituzte. 17:00etan *Marmaduke* haurrentzako pelikula ikusi ahal da, 19:30ean *Neds* eta 22:30ean *The Way*.

Etzi, igandea, haurrentzako beste filma bat eskainiko dute, *Mystik*, euskaraz ikusi ahal da 17:00etatik aurrera. 19:30ean *The Way* eskainiko dute eta 22:00etan *Neds*. Astelehenean, ikuslearen eguna, *Neds* ikusi ahal izango da 20:30etik aurrera.



Nothing personal pelikulako irudietako bat. HITZA

Eguberri
hauetan
oparitu
HITZAko
harpidetza!



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-1

www.tolosaldekohitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

Bezperako lanak bukatu ezinik

Atzo iritsi ziren Hiru Errege Magoak Zizurkilera. Mezaren ostean Zizurkil Goiko Elizan egin zieten harrera

Urte berria hasi eta Gabon egunak pasata, egunerokotasunerat bueltatu beharra dago

Erredakzioa

Urtero urtero, urtarrilaren Seko gauetan lan asko izaten dute Hiru Errege Magoek. Gau batuan, etxe guztiak pasa behar izaten dute opariak jartzeko eta batzuetan ez dute denborarik izaten guztiak pasatzeko.

Itzaskundik jaitzita, Tolosara azen orduan iritsi ziren eta haur eta gurasoak zain izan zituzten. Eta Zizurkilera atzo iritsi ziren. Lehenbizi, Zizurkil Goiko Elizan atarian egin zieten harrera bertaratua. Haur eta helduekin egoteko tartea izan zuten eta gozokekin batera musuak banatu zituzten zizurkilardaren artean.

Behin Zizurkil Goiko bisita eginda, Fraisoro Zentzora joan ziren. Bertan dauken gutxiel hauek bana egin zieten bisita eguna alaituz.

Gabon egunak iritsi bezala pasa dira. Bazkari eta afariak, Oientzero eta Erregeen opariak, abestiak, gozoak, parrandak eta ajak. Gurtiak dira Gabon egun hauek ezagarri baina astelehenera bueltatzearrekin batera, egunerokotasunerat bueltatu beharra dago.

Hasi besterik ez dugun 2011. urtean itzaskundik jaitzita hauek ezagugarren, opariak jaso nahi behar ditugu behintzat.



Gozokekin batera musu asko banatu zituzten Hiru Errege Magoek Zizurkilera. | TERRAZOLAS

Irudia • Villabona



HUTSIK EGITEN EZ DUENA

Erregeen egunetan ezin zuten hutsik egin Errege Opiak. Ohi urtean jarraituz, ia etxe guztietara iritsi zen. Atzo, okindegi eta gozotegiaren jendearen sartu irten asko izan ziren. Hurrengo urtean ere opariak banatu gurean izango da. | TERRAZOLAS



Itzaskundik jaitzita ziren Tolosara eta haurrekin egoteko tartea alera zuten Zerkausian. | TERRAZOLAS



Udaberrian egingo dute Sahararen aldeko janari bilketa

Abenduaren hasi ohi ziren beste urteetan Sahararen aldeko Euskal Karabazarenekin. Aurtun, ordea, Fronte Polisarioaren euskal ordezkartzak udaberria atzeratzea proposatu du eta Tolosaldeko Sahararekin elkarrekin beste eskualdeetako elkarrekin egin duten bezala, antzara hartu du proposamena. Beraz, Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren sahararrei bidaltzeko janaria eta materiala udaberrian bilduko dute.

tan aurrera egin nahi dugu. Argia ikusi nahi dugu, aurrera egin dezagunaren esperantza emango duguten nantzuak. Eta horrela, pixkanaka, guk aldarrikatzen dugunaren bideetik joan nahi dugu, gure lurra gure katea lortu arte. **Auzoan gertatu zenak esperetako ondorioa izan da?** Marokok bortzik eraso zuen, heriotzak ere sortuz. Guk une hartan amak hartu gaituzko, baina ez genuen egin. Hain zuzen ere hori zen Marokok nahi zena, guk gerra erabaki. Baina guk bakarren bideetik jotzen dugula erakutsi izan dugu behin eta berriro eta une horretan ere hori egin genuen.

Zer iruditzen zaizu Tolosaldean Sahararen alde egiten den lana?

Asko eskertzen dut. Ezagutzen dut Tolosaldean egiten den lana. Fronte Polisarioko euskal ordezkaria familiakoa izanik horren inguruan asko hitz egin didakiko. Badaikit, orain Gabonetan Merkatu Txikia dagoela eta bertan jasotako dirua saharar lurralde aldean ikastetxe bat eraikitzeko izango dela. Bestalde, oso garrantzitsua da udan bi hilabetez haur sahararrik hona etortzea, bai osasun aldetik, bai eta herizketatik, oso beharrezkoa da ekimen hori. Horrez gain, beste ekimen ugari egiten dira urtean zehar elkartasuna adierazteko, eta politikoki ere asko egiten da. Guretzat oso garrantzitsua da horrelakoekin jarraitzea, eta asko eskertzen dugu.

Abeid Moulud • Bir-Lehlu herriko alkatea

Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuetako Bir-Lehlu herriarekin anaituta dago Tolosa; bertako alkatea Tolosan da, eta gaur Tolosako alkatearekin eta zinegotziekin bilduko da; sahararren egoeraz hitz egingo dute eta bi herrien arteko akordioa zehaztuko dute

«Ez gaude eskuak gurutzaturik denbora gehiago egoteko prest»

Iligo Terrazolas Gortzea

Tolosarekin anaituta dagoen Bir-Lehlu itzaskundeko saharar errefuxiatuen kanpalekuetako herriaren izan zen duela bi aste. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea. Egunotan, berri, gurean da Abeid Moulud Bir-Lehlu herriko alkatea. Hain zuzen ere, gaur goizean da biltekoa Tolosako alkatearekin eta zinegotziekin. Bertako egoeraz hitz egingo dute, eta sendidetzarekin har ditzaketen konpromisoak zehaztuko dituzte.

Alkatearekin eta zinegotziekin bilduko zara gaur. Zain da bilarraren helburua? Batetik, bi herrien artean dagoen analitaren akordioa berriro dugu, eta bestetik, baina arteko harremana indartzea lortu nahi dugu. **Zer fortazan da bi herriak sendiduta?** Sendidetzak bi helburu desberdin ditu. Batetik, kooperazioa onerena dugu, hain da, materialki egin ditekona. Hor, esaterako, badugu buruan ur deposituarekin egin nahi dugun proiektu bat. Bestetik, eta

aurreroko bezain garrantzitsua da, bertako egoera politikoa ezagutzeko. Kasu honetan, adibidez, han gertatzen denaren jakinaraz gurean egotea litzateke helburua. **Tolosako alkatearekin bisita jaso zuten duela bi aste. Nola izan zen?** Urdaitzen, gurean zentzua edota haureskola bisitatu zituen, eta mirakin ez ezik beste agintariek ere bildu zuten. Gure baimoa eta kanpalekuetako errealitatea ezagutu zuten eta hori garrantzitsua da.

Nola desribatuko zenuke sahararren eguneroko? Guk bakarren aldeko bidea hautatu izan dugu beti. Baina, aldi berean, egoera berriaren aurrean erantzuna emateko prest egotea ere beharrezkoa da. Datorren astean Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko negoziaketa bilerekin jarraituko dute. Uste dut bilera horiek erabakigarriak izango direla. Hain da, gu ez gaude eskuak gurutzaturik denbora gehiago geratzeko prest. Zirt edo zart egiteko unea da. Biler horietan

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperrean, gure komunikazio proiektuak berria eta indaritu ditugu udaloketarekin. **Apostu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrieta.info

www.berria.com

www.euskalherriko plaza.com

iragarkilaburak.com

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpena egiteko bideak 50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruerekin

- Transfrentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean

berria taldea



Urtarrilaren 2tik aurrera tabernetan kerik gabeko giroa nabaritzen da. Parranda gauetan ikusi beharko da egunean zehar bezala legea betetzen den. I. GARCIA

Leku itxietan keari agur

Tabernariak azaltzen dutenez, erretzaileak errespetu handiz ari dira jokatzeko eta ez dira erretzen ari tabernetan

Ikusgai dago zer-nolako eragina izango duen erretzearen debekuak ostalaritzan

Imanol Garcia

Urtarrilaren 2tik aurrera leku itxi publikoetan ezin da erre, tabakoaren aurkako lege berriak zehazten duenez. Besteak beste, tabernetan eta jatetxeetan zigarrorik edo pururik ezin dela piztu esan nahi du. Zenbait leku irekietan ere ez dago baimenduta erretzea, haur parkeetan eta osasun zentroen sarreretan esaterako.

Eztabaida gehien sortzen duena tabernetan erretzearen debekua da. Erretzaileek aisialdirako

erabiltzen den leku batean ezin erretzea gehiegikeria bezala ikusten dute eta ikusgai dago negoziari zenbateraino eragingo dioen neurriak.

HITZAK zenbait tabernariaren hitz egin du eta denek bat egiten dute legea indarrean jarri denetik, egun gutxi badira ere, erretzaileak errespetu osoz jokatzen ari direla. Tolosako 19/90 tabernako arduradunetako batek, Aitziber Jauregik, dioenez, «erretzaileek uste baino errespetu handiagoa dute. Beti izango da des-

pistaturen bat, baina normalean erretzaileak beti errespetatzen du non erre daitekeen eta non ez».

Tolosako Orbela tabernako Ekaitz Goikoetxearentzat, «bezeroek uste nuena baino errespetu handiagoa erakutsi dute. Nik ez nuen espero jendeak hain drastikoki utziko zuela erretzeari. Aurreneko egunean etorri nintzenez, tabernan jende asko zegoen eta inor ez zen ari erretzen». Alegiako jubilatuen tabernako Mari Jose Leundak azaltzen duenez, «oso ondo errespetatu da. Inori ez diegu ezer ere esan. Hautsontziak kendu genituen eta ez da izan inongo kezarik».

Legearen egokitasuna

Legeari buruzko iritzia galdetuta, Jauregik dioenez, «normaltasun guztiarekin hartu dugu. Bagenekien orain dela bost urtetik poliki-poliki debekua sartzen joango

zirela, era batera edo bestera. Aurreko legeak ez zuela inongo zentzurik eta hurrengo legea askoz drastikoa izango zela bagenekien». 19/90ko arduradunak gaineratzen duenez, «ez gaitu batere harritu. Barneratzen joaten zara. Ez da gauza bat hobeagoa edo okerragoa dela. Gaia ikusteko beste modu bat da eta orain legea bete beharra dago».

Goikoetxeak «ondo ikusten» du lege berria. «Nik uste nuen iritsiko zela. Europa guztian horrela dago eta bere onurak izango ditu ere». Egun hauetan jende gazteagoa ikusi du tabernatan haurrekin sartzen. «Giroa ere garbiagoa ikusten da. Ez dago kerik, urrutitik ikusten da. Nik uste dut ohitzea izango dela». Orbelakoak ikusten du erretzaileen artean, puruak erretzen dituztenak izango dutela egoera zailena. «Jendeak gutxiago erreko du. Ha-

sieran zigarroa erre nahi duenak kanpora aterako da. Gero batzuei gehiago kostatuko zaie eta kanpora ez dira hainbeste aterako. Kafe batekin bi zigarro erre beharrean zigarro bakarra erreko du».

Leundak, berriz, legea zorrotza dela dio. «Orain dela bost urte martxan jarri zen lege hura ondo aplikatu behar zela uste dugu. Eta aurrerago agian hau aplikatu. Baina orain kolpean, beste arri kasu egin ez zaioenean, dena moztea oso zorrotza iruditzen zaigu».

Onurak eta ondorioak

Osasunaren aldetik eta garbitasunaren aldetik onurak ekarriko dituela diote tabernariak, baina jendea tabernetatik ateratzeko kaleren eragin dezakeen zarataz ere ohartarazten dute.

Leundak esaten duenez, onuragarria izango da «dana egiten due-

narentzako. Pintxoak jateko ere kea ikusi edo dena garbi-garbi ikustea beste sentsazio bat da. Hori bai, margolariek lan gutxiago izango dute». Kalean sortu daitekeen zarataz, «ikus beharko da zer gertatzen den. Gaur egun ere protestak izaten dira musika al-tua dagoelako eta ikusi beharko da. Gero agian beste lege bat etorriko da tabernatik alkohola ezin dela atera edo kristalezko basoak ezin dela atera esanez».

Jauregik azaltzen duenez, «osasunean nabaritutako da. Irudizten zaigu gure birrikak eskertuko dutela eta baita gure altzariek ere. Keak sekulako aberiak egiten ditu eta hori edozeinek daki». Goi-koetxeak dioenez, «pintxoak jaten dituenak eskertzen du. Nik uste dut hemendik urte batzuetara gauza arraro bat bezala gogoratuko dugula pintxoak zeuden toki batean erretzea zegoenik». Kalean sortu daitekeen zarataren inguruan, «Alde Zaharrean oso desatsegina izaten da, bizilagunek dena entzuten dute. Guk gai horretan ezin dugu ezer egin».



Zenbait leku irekietan ezingo da erre, besteak beste, haur parkeetan. I. GARCIA

Negoioan eragina?

Tabernariak ez dakite zehazki nola eragingo duen beraien negozioetan erretzearen debekuak. «Bezero gehiago edo gutxiago izango diren urtebetera jakingo da», azaltzen du Jauregik. «Nik badakit zer lan egiten dudan orain eta hemendik urtebetera egingo dugu balantzea. Beste produktuk batzuk saltzen ditut eta saiatzen naiz produktu horiekin bezeroa erakartzen». Egunero etortzen diren bezeroak dituzte. «Lehen sartzen dira eta orain ere sartzen dira. Lehen gurasoak ez ziren sartzen haurrekin eta orain sartzen dira inongo arazorik gabe».

Jauregik nabarmentzen du be-raiek arkupea dutela eta horrek erretzaileei erraztu egiten diela kanpora ateratzea. Bestalde, Eus-

↓ Erretzea debekatua dagoen lekuak

Oro har publikora zabalik dauden leku itxi guztietan debekatuta dago erretzea. Zenbait leku irekietan ere ezin da zigarrorik piztu. Ondorengoak dira nabarmentzekoak:

- **Tabernak eta jatetxeak.**
- **Hotelak, ostatuak eta antze-koak.** Ezingo da erre, leku irekietan ezik. Bestalde, erretzaileen-tzat logela jakin batzuk egokitu ahalko dira. Gehienez logelen %30a gorde ahalko da.
- **Haur parkeak.** Ezin da haur

kal Herria plazan terraza dute. Inbertsioa egin dute kalefakzioa eta toloak jartzeko. «Bi itxidura bakarrik izan ditzake toloak, ber-

parkeetan eta haurren jolasera-ko egokitututa dauden lekuetan erre, leku irekietan badaude ere.

- **Ospitaleak eta osasun zentroak.** Bai barruan eta baita bere eremuan, leku irekian bada ere, ezin da erre.
- **Garraioa.** Edozein garraio publikoetan ezin da erre (autobusak, taxiak, trenak...). Geltokietan ere ez, leku irekietan ezik.
- **Lantokietan.** Publiko zein pribatuetan ezin da erre.
- **Elikagaiak dauden lekuak.**

tan erre ahal izateko. Gure lana da jendeari zerbitzu bat ematea eta saiatzen zara modu batera edo bestera ematen». Leundak ere

Elikagaiak egin, prestatu edo saltzen diren saltoki edo lekue-tan debekatuta dago.

- **Aretoak.** Antzerki, zinema eta beste ikuskizunetarako erabiltzen diren aretoetan, leku irekietan ezik.
- **Leku txikiak.** Ezin da erre telefono kabinetan, kutxazain automatikoetan eta publikora zabalik dauden bestelako espazio txikietan. Leku txiki bezala hartzen dira bost metro karratu baino gutxiago dutenak.

azaltzen duenez, ez dakite jende gutxiago joango den tabernara. «Guk ez dugu sumatu jende faltarik. Gaueko giroan nabaritutako da

gehiago, baina guk ez dugu gauean irekitzen». Jubilatuen tabernak estalpetxo bat du eta horrek ere abantaila suposatzen du erretzaileentzat eguraldi txararren aurrean.

«Polizia lana»

Debekatuta dagoen lekuetan errez gero, multak egon daitezke erretzaileentzat. Tabernetan gertatzen denean, tabernarientzat ere bai. Goikoetxeak dioenez, «nik garbi daukat nire bezero bati ez diodala aurre egingo. Nik esango diot ezin dela erre. Hortik aurrera ez diot aurre egingo, hori beste batzuen lana da». Ez du uste isunen kontuak aurrera egingo duenik: «Ez dut uste zigarro bat erretzeagatik jendea etorriko dela eta isuna jarriko denik. Harritzen nau isuna sartzeak tabernetan». Jauregi kexu da tabernari «polizia lana» egitea egokitzten zaielako. «Garai batean trenetan ezin zen erre baina inori ez zitzaion burura etorri Renferi isuna jartzea. Erretzaileari jartzen zitzaion. Guk egin behar dugu lan hori eta gainera ez badugu egiten isuna jartzen digute».

Lehenengo egunetan, behintzat, ez dute abisurik eman behar izan. Parranda gauak iritsi ahal ikusiko da egoerak berdin jarraitzen duen.

Ohitura kontua izango dela diote, autobusetan ez erretzearena bezala. Urtarrilaren 2a baino lehen ere Jauregik ikusi zuen ohi-turak zertxobait aldatzen ari zirela. «Abenduaren 24ean, arratsaldean, taberna beteta zegoen. Emakume batek galdetu zidan erretzerik bazegoen. Baietz esan nion, oraindik legea ez zela mar-txan jarri. Eta berak esan zidan taberna guztian inor ez zela ari erretzen eta horregatik galdetu zidala. Begiratu nuen tabernan zehar eta egia zen, inor ez zen ari erretzen».




Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak


HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errezagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Alegia.** Haurreskola eta gimnasio berria ezagutzeko ate irekien jardunaldia 11:00etatik 13:00etara.

KIROLA

■ **Tolosa.** Pilota partidak Beobitarren. 16:30ean Promozio Bina-kako BBK Txapelketako finalurdenetako partida (Olaetxea-Albisu Lemuno-Oteiza). Ondoren, lehen mailako Bina-kako Txapelketa (Berasaluzte VII.-Apraiz Olaizola I.-Beloki).

AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkato Txikia, kultur etxean. Igandea bitarte egongo da zabalik. Bihar eta etzi beherapenak izango dituzte.

EMANALDIK

■ **Alegia.** Gaztetxean *Igo Gora* ikuskizuna izango da igandean 19:00etan. Literatura eta musi-

ka eta abar uztaizten dituen ikuskizuna da.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Zine foruma izango da gaur: *Nothing Personal* 19:15ean eta 21:45ean. Bihar *Marmaduke* (17:00), *Neds* (19:30) eta *The Way* (22:00). Etzi *Mystik* (17:00), *The Way* (19:30) eta *Neds* (22:00).
■ **Villabona.** Bihar Gurean *Caza a la Espia* filma 19:30ean eta 22:15ean. Etzi 16:30ean *Aprendiz de Brujo* eta 19:30ean *Caza a la Espia*. Astelehenean 21:30ean ere *Caza a la Espia*.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *reborn* pampinik osatua, Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Napoleoni buruzko erakusketa Aranburu ikusgai.
■ **Tolosa.** Wayang Golek Indonesiako txotxongiloak Topic-en astelehena bitarte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.


ETZI

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

Irudia Tolosa



IRITSI DIRA OPARIAK

Bukatu dira Eguberriak eta urtero bezala Errege Magoen opariekin batera iritsi da amaiera. Badirudi urtetik urtera gutxiago direla kalean jostailu berriekin aritzen diren haurrak, batez ere teknologia berriekin zerikusia duten opariak direla eta. Baina hala ere, atzokoan baziren Hiru Erregeen opariak kalean estreinatu zituztenak. I. TERRADILLOS

Agurrak



urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Zorionak!

Maddi Begiristain, 7 urte. Zorionak poxpolin, zazpi urterekin etxeko erregin. Txokolatzeko muxuak batez ere Manexen partetik.

Zatuz HITZAKo bulegora zure mahai egutegiaren bila!

